

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

470/2022 Foru Agindua, irailaren 9koa, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Foru diputatuarena. Honen bidez, Arabako Garraioaren Arbitraje Batzordeko kideen berritzea onesten da

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 11ko 24/2017 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Arabako Garraioaren Arbitraje Batzarraren osaera eta barne funtzionamendua. Arbitraje Batzorde hori garraioan esku hartzen duten aldeak babestu eta defendatzeko tresna bat da, eta uztailaren 30eko 16/1987 Legeak (Lurreko Garraioak Antolatzekoa) 37. eta 38. artikuluetan ezarritako funtzioak betetzeko. Arabako Garraioko Arbitraje Batzordea Arabako Foru Administrazioaren eskumena da, 1950eko martxoaren 9an Estatuko Administrazioarekin lurreko garraioei buruz sinatutako hitzarmenen arabera. Hitzarmen horien indarraldia uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoaren xedapen gehigarriak onartu zuen.

Oro har, Arbitraje Batzarrari dagokio lurreko garraioaren arloko kontratuak betetzearen inguruan sortzen diren merkataritzazko eztabaidak ebaztea, noiz ere, elkarrekiko adostasunez, Arbitraje Batzarrari aurkezten zaizkion haietaz ardura dadin, eta, orobat, garraio enpresek eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarrien arloko enpresek egindako kontratuak direla-eta sortzen diren eztabaidak.

Osaerari dagokionez, irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren 8. artikulua xedatzen duenez, garraioko arbitraje batzordeak lehendakariak eta gutxienez bi kidek eta gehienez lauk osatuko dituzte. Ildo horretan, Foru Gobernu Kontseiluaren 24/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, lehendakari batek eta hiru batzordekidek osatuko dute Arabako Garraioaren Arbitraje Batzordea, eta "horiek guztiak Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak izendatuko ditu foru agindu bidez" honela:

– Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 22ko 47/2019 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera, lehendakaria Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuko funtzionarioa izango da, Zuzenbidean lizentziatura edo gradua duena.

– Batzordekide batek, auzi motaren arabera, erabiltzaileak edo enpresa kargatzaileak ordezkatzeko ditu. Haiek, hurrenez hurren, bidaiari edo salgai garraioei buruzko errekamazioetan dihardute. Lehenengo kasuan, izendapena kontsumitzaile eta erabiltzaileen proposamenez egiten da; bigarrenean, berriz, kargatzaileak ordezkatzeko dituzten elkarteek proposatuko dute, edo Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak.

– Beste batzordekide batek garraio enpresak edo jarduera lagungarri eta osagarrien enpresak ordezkatzeko ditu. Horretarako, gutxienez bidaiari garraioko enpresen ordezkari bat eta salgai garraioko enpresen beste ordezkari bat izan behar dira, auzi motaren arabera, eta gutxienez trenbide enpresen ordezkari bat.

– Batzordekide-idazkaria Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuaren (47/2019 Foru Dekretuaren arabera) funtzionarioen artean izendatuko da eta Zuzenbideko lizentziatura edo gradua izan behar du.

Halaber, Arbitraje Batzordeko kide titularren ordezkariak ere izendatu daitezke.

Errepide Garraioaren Arabako Enpresa Elkartek jakinarazi du salgaien eta bidaiarien garraioko enpresetako kideak ordeztu dituztela. Era berean, azken hilabete hauetan Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuan izandako aldaketen ondorioz, beharrezkoa da arbitraje batzordea osatzen duten funtzionarioen izendapenak berritzea eta eguneratzea.

Izendapen berriek behartzen dute ebazpen hau argitara ematera, ALHAOn txertatuz, daitetzkeen abstentzio eta errekusazioak direla eta.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 11ko 24/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri dagozkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gonzalo Sáez de Ibarra Martínez de Estarrona, Iñaki López de Foronda Ortega, Francisco Aguirre Osinaga eta Carlos Alegría Suso Arabako Garraioko Arbitraje Batzordeko kide kargutik kentzea, haiek hala eskatuta, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena. Errepideko Garraioaren Arabako Enpresa Elkartek proposatuta, Arabako Garraioko Arbitraje Batzordeko kide hauek izendatzea:

– Jaime Alzola Ruiz de Infante, salgaien garraioko eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarrietako enpresen kide titular.

– Maria Eugenia Irazoqui Ugartemendia, bidaiariak autobusez garraiatzeko enpresetako kide titular.

– Agustín Gutiérrez Coteron, bidaiariak autobusez garraiatzeko enpresen ordezkari.

Hirugarrena. Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuko langileen plantillan aldaketak izan direnez, Arabako Garraioko Arbitraje Batzordeko funtzionarioen osaera berria onetsi behar da, honela:

– Carlos Fernández de Betoño Hernández, batzordeburu titularra eta hirugarren ordezkari batzordekide-idazkari.

– Amaia Pérez de Arrilucea Osa, lehenengo ordezkari batzordeburua eta batzarkide-idazkari titular.

– Begoña Díaz Aisa, hirugarren ordezkari batzordeburua eta bigarren ordezkari batzordekide-idazkari.

Laugarrena. Arau honek onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Bosgarrena. Foru Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorri. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 9a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Mugikortasun eta Garraio zuzendaria
PATRICIA PÉREZ AGUIRRE